

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ESKOLA LIBURUAK

Eskola liburuen azoka, martxan

Kronikak eta Doberak eskainitako bigarren eskuko azokan, ehundaka eskola liburu daude; lehen hezkuntza eta batxiler mailatakoak

UDA amaitzean da, eta horrekin batera, ikasturte berria hasteko ordua da. Hori dela eta, Dobera euskara elkarteak eta Kronikak, proiektu bat jarri dute martxan, hala nola; eskolako liburuen bigarren eskuko azoka.

Atzo ireki zen lehenengo, eta jadanik pilatu dira zenbait liburu. Bertan, lehen hezkuntzako eta batxilerreko liburuak aurkitu daitezke, haien artean; matematika, euskera, gaztelania, fisika eta kimika, biologia, eta beste hainbat.

Aurreko bi asteetan, bulegoa zabalik egon da, eskola-liburuak jasotzeko eta hauek ondoren, herritarren eskura jartzeko asmoz.

Gaur egun, Eskola liburuek gastu handia ekartzen dutela kontuan hartuz, oso prezio baxuan eskaintzen dira bigarren eskuko azoka honetan. Jendeari, erraztasun handiagoak emateko eskola liburuak erosterako orduan.

Egiten diren erosketak beti izango dira ongi etorriak. Bulegotik pasa ahal izango du nahi duenak, behar duen libururik ba ote dagoen ikusi eta merke-merke erosteko. ■



■ ASTIGARRAGA ERGOBIAKO PLAZA

Oinezkoentzat gaurtik, Ergobiako plaza

2018ko udazkenetik 2019ko udarara arte hausnarketa prozesua egin du Udalak, Aztiker Soziologia Ikerkuntza gidatuta. «Denera sei batzar egin ditugu; aurretik ere, portal bakoitzeko kezka ere jaso ditugu», azaldu du Susana Martinez teknikariak. Sei hilabete barru egingo dute ebaluazioa.

FESTAK bukatuta, aldaketa nabarmena izango du gaurtik Ergobiako plazak: oinezkoentzat gune bilakatuko du Udalak, eta beraz, kotxeek ezin izango dute bertan aparkatu. Udalak adierazi duenez, «Udal-tzaingoak neurri honi jarraitzen zorrotza egingo dio».

Zamalanak, goizean zehar

Hori horrela, salbuespen bakarra egongo da. Astelehenetik ostiralera goizeko 08:30etatik 13:30ak bitarte irekita egongo da plaza, baina zamalanetarako besterik ez da izango hori.

Bizilagunekin prozesua, 2018ko udazkenetik

Ergobiko plaza oinezkoentzat izatea helburu izanda, hausnarketa prozesua egin du Udalak bizilagunekin. Horretarako, Aztiker Soziologia Ikerkuntza izan dute bidelagun; tartean izan da Susana Martinez Aztikerreko teknikaria: «2018ko udazkena eta 2019ko udara artean hainbat bilera egin ditugu bizilagunekin, betiere, norabide horrekin, Ergobiako plaza oinezkoentzat izatea erabaki zela aspaldi eta erabilera ez dela hori».

Eta hori da bizilagunei azaldu zitzaizena, Udalaren asmoa zela plaza oinezko erabilerrara bideratzea.

Horretarako, «denera sei batzar egin ditugu; aurretik ere, portal bakoitzeko kezka ere jaso ditugu», azaldu du Martinezek.

Hasteko, diagnosis egin zuten auzotarrekin batera, eta



Kotxeek debekatuta izango dute Ergobiako plazan sartzea.

ikusi zuten, batez ere, «zein kalte ekartzen zituen» egungo egoerak. Gainera, ikusi zuten bertaratutako gehiengoaren iritzia zela Plaza oinezkoentzat bilakatzea, betiere, «bertan dauden jarduera ekonomikoekin erraztasunak emanez».

Hori horrela, pausoak ematen hasi ziren. Lehenengo, Ergobia sarreran dauden bi zonaldeak «txukuntzea» erabaki zen, bertan aparkatu ahal izateko. Bestetik, jarduera ekonomikoekin zamalanetarako ordutegia ezarri zuten.

Ergobia sarreran dauden zonaldeak hobetuta

Susana Martinezek azaldu duenez, txukuntza lan horiek udaberriaren zehar egin dira, eta hortaz, «adostu moduan», horiek bukatuta jarriko da martxan.

«Zonaldea eraldaketa jasa-

Goizeko 08:30etatik eguerdiko 13:30ak bitarte irekita egongo da, zamalanetarako bakarrik.

ten ari da, beraz, aldaketa egin nahi zen, obra haundirik egin gabe», eta halaxe egin dute: «horizontalki marrak margotu dira, eta batez ere, argiztapena hobetu da. Poligonora dihoan bidean kimaketa-lanak egitea falta da. Zailtasun teknikoak daude, eta horretan ari dira lanean», onartu du.

Gai bat, «zintzilik»

Dena den, gai bat «zintzilik» geratu dela dio Aztikerreko teknikariak: «auzotarrek eskatzen zuten bertan bermatzeko aparkaleku plaza bat.

Hori herri-mailan hartutako erabaki bat da. Hortaz, Udalak konpromisoa hartu du aztertutako landuko duela».

Sei hilabete barru, ebaluazioa Lanak eginda, beraz, gaur itxiko da Plaza, eta sei hilabeteko epean ebaluazio bat egingo dela adostu da: «bakoitzak bere esperientzia ekartzeko konpromisoa hartu da».

Jarrera ona, auzotarrek

Prozesua positiboki baloratu du Martinezek: «prozesu lasaia izan da, jarrera onekoa. Horrelako gauzak mantsoak izaten dira, baina ondo joan da. Lortu da interes indibidualetatik komunitarioetara pasatzea». Hain zuzen, horretan «akonpainatzea» eta «pedagogikoki laguntzea» izan da Aztiker Soziologia Ikerkuntzaren lana. ■

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

ATZA
Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzatabela@gmail.com

DORRONSORO
OKINDEGIA
Ogi egin berria
beti zure eskura
Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Orduetgia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegunetan: 7:00-14:30
Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Orduetgia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegunetan: 7:00-14:00



GAUR Gaur ere, egunaren haisera nahasia izango da, zerua hodeitsu egongo da eta zaparrada trumotsuak bota ditzake goizaldean. Hala ere, eguerdian, eguna argitu egingo da, baina aratsaldean berriro ere lainoak pilatuko dira. Baliteke gaualdetara ekaizak jotzea. **Min.19° / Max.24°**



BIHAR Bihar eguraldi egonkorragoa eta argiagoa egingo du. Iparraldean ostarreak eta hodeiak izango dira. Haizea aldakor ibiliko da egun osoan zehar, eta aratsalde partean, ipar haizea nagusituko da. Hala ere tenperaturak, gora egingo du. **Min.19° / Max.26°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI AMHER-SOS ARRAZAKERIA

Arropa, liburuak eta jolasak hartzeko aukera, azokan

'Behar duzuna hartu' lelopean egingo du azoka Amher-SOS Arrazakeria elkarteak ostiralean. Haien lokalean izango da, goizeko 10:00etan hasita.

BIGARREN eskuko material nahikoa jaso du azkenaldian Hernaniko Amher-SOS Arrazakeria elkarteak, eta horiei irtenbidea eman nahi diote.

Horretarako, azoka antolatu dute; ostiralean izango da, goizeko 10:00etatik eguerdikiko 12:00etara bitarte. Haien lokalean egingo dute, Transpaarren.

Behar duzuna hartzeko, aukera

Arropa, liburuak eta jolasak

Azoka antolatzen lagundu nahi duenak, Whatsapp bat bidali besterik ez du.

aipatu dituzte jaso dituzten materialen artean. «Behar duzuna hartu» leloarekin egin nahi diete deia herritarrei, bertaratzeko. Azaldu dutenez, «urte osoan zehar eskaintzen ditugu material horiek guztiak», baina oraingo honetan

modu berezian egin nahi izan dute, «elkar ezagutzeko aukera baliatzeko».

Hortaz, «zer edo zer behar edo ekarri nahi baduzu, edota jendea ezagutu eta gurekin momentu ludikoa partekatu nahi baduzu, ongi torria zara!», animatu dute.

Antolatzen lagundu nahi?

Antolatzen laguntzeko ere jende bila dabilta. Nahi duenak 667 71 09 28 zenbakira Whatsapp bat bidali besterik ez du. ||

HERNANI PORTUKO JAIK



Iker Vicente nafarra, igandean Portuko Jailetan.

1200 euro, Super Hrentzat

Asteburu osoa festa-giroan pasa ondoren, igande gauean eman zion bukaera Portu auzoak aurtengoari. Urtero bezala, sagardo probaketa izan zen eguerdia girotu zuena; aurtengoan, Urrietako Super H elkar-terean alde egin zuten, eta han bertan eman zieten jasotakoa, 1200 euro. Horregatik, «esker-erak» eman nahi dio elkarteak Portu auzoari eta hurbildu zirenei, baita «gonbidapenagatik» ere. «Oso harrera ona» izan zutela adierazi dute. Desafioak erakarri zuten jendea, aratsaldean. ||



Super H elkarterean alde egin du sagardo probaketa Portu auzoak.

HERNANI ERREMONTEA

Urriza eta Endikak Buruz Burukoa, gaur

Gaurko Buruz Burukoan, bai Urrizak eta bai Endikak, finalerako pausu handia lortu dezakete

GAUR, aratsaldeko 16:00etan Urriza eta Endika izango dira Galarretan ospatuko den Buruz Burukoan, Kutxabank txapelketako laugarren final-lurrekoa jokatuz. Irabazleak, pausu handia eman dezake, irailaren 14ean antolatu den finalerako.

Urriza, Ansa Iren aurka jokatuko den partiduan ezin hobe aritu zen, eta Endikak ere halaxe ziurtatu zuten, Barrenetxea IVari irabazi zionean. Beraz, gaur Galarretan jokatuko den Buruz Burukoan, dena emango dute bai Urrizak eta bai Endikak ere. ||

HERNANI ITURREGI KALEA

Iturregi kalea itxita, gaur eta bihar

Asfaltatze lanak direla eta, Iturregi kalearen sarrera eta irteera itxita egongo da, goizeko 7:00etatik aurrera, lanak segurtasun osoz egiteko. Udalak eskatu du, kaleko ibilgailu guztiak ateratzea. ||

HERNANI KONTRAKANTXA

Auzolana eta ondoren bazkaria, gaur

Kontrakantxa Gaztetxeak, auzolana antolatu du, gaur. Goizeko 10:00 izango da, eta ondoren 14:00ak aldera bazkaria egongo da. Ez da izena eman beharrik, bertara azaltzea nahikoa da. Kontrakantxako kideek adierazi dute, edonork dituela atek irekita. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

V. URTEURRENA
Antonio Gomez Gomez
"El Pana"
2014ko abuztuaren 27an hil zen, 59 urterekin

Maite zaitugu

ETXEKOAK

Hernanin, 2019ko abuztuaren 27an

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua